



2011/2015 legealdiko MEMORIA

Laburpen exekutiboa	1
Sarrera	5
2012 urtea - Legegintzaldiaren hasiera	7
2013 urtea – SMART GIPIIZKOA	11
2014 urtea – SMART LAB GIPIIZKOA	14
2015 urtea – Aurrekontu-luzapena.....	16
Legegintzaldia zenbakitan	18
1 Eranskina. Inbertsio eta Onuradunen Txostena.....	25



Laburpen exekutiboa

Informazio Gizartearen Zuzendaritzak hainbat arlotan egin du lan. Hona hemen arlo bakoitzeko adierazleak:

1. Laguntza-programak

Legegintzaldi honetan, **goitik behera berritu dira** Informazio Gizartearen Zuzendaritzak eskainitako **laguntza-politikak**. Programa bat bertan behera utzi da, eta lau berri sortu dira.

2012/2014 epealdian, mila proiektu baino gehiago aztertu ditugu eta 667 babestu ditugu. Hala, 4,7 milioi euroko laguntzak eman ditugu, eta horien bidez, 11 milioitik gorako inbertsioa bultzatu dugu.

2015eko ekitaldirako aurreikuspenak ere barne hartuz gero, ekitaldiaren amaierarako, ia 800 proiektu babestera iritsiko gara, eta 6,5 milioi euro inguruko laguntzak esleituko ditugu.

EPEALDIA	AURKEZTURIKOAK		BULTZATURIKOAK	
	Proi. Kop.	Proi. Kop.	Sustaturiko inber.	Emandako diru-laguntza
2012 - 2014				
Berrikuntza Digitala: MiKroenpresak	319	307	915.536 €	375.559 €
Berrikuntza Digitala: IKTen sektorea	298	77	5.521.860 €	1.980.443 €
SMART GIPUZKOA	84	16	1.810.864 €	500.000 €
SMART LAB GIPUZKOA	15	8	956.575 €	500.000 €
Berrikuntza Digitala: UDALAK	338	259	2.181.386 €	1.369.166 €
GUZTIRA	1.054	667	11.386.221 €	4.725.169 €

2. IZFE

Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte (IZFE) Informazio Gizartearen Zuzendaritzara atxikita dago, eta haren esku dago, Administrazio Kontseiluarekin koordinazioan, kudeaketa-politika zehaztea, baita hari segimendua eta kontrola egitea ere. IZFEk lantzen eta mantentzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko eta ia udaletxe guztietako informatika-zerbitzuak (Donostiako eta Irungoa izan ezik). 145 lagunetik gorako lantaldea du, eta urtean 20 milioi euro inguruko fakturitzen ditu; hala, Gipuzkoako informatika-enpresa handienetakoa da. Legegintzaldi honetako mugarriz garrantzitsuenetako bat izan da IZFEren gerentzia berria izendatzea eta Gipuzkoako udalei zerbitzua emateko antolakuntza-egitura berregituratzea. Horrez gain, erakundearen berbideratze teknologikorako plangintza estrategikoa egin da.

3. Sentsibilizazioa, prestakuntza

IKTekin lotutako 60 jardunaldi profesionaletik gora bultzatu ditugu; gehienak sektoreko erakunde garrantzitsuekin lankidetzan egin dira eta, bereziki, euskaraz egindakoak bultzatu dira.

4. Ekintzaitetza

Antolakuntza arazoak direla eta, departamentuaren barruan beste ekintzaitetza-alor bat sortzea baztertu dugu, baina barne-mailako koordinazio-mekanismoak ezarri ditugu, batetik, proiektu berrien berri izateko eta, bestetik, negozio berriak sortzeko gure ezagutza eta esperientzia eskaintzeko.

Horrez gainera, bi lehiaketa sustatu ditugu negozio berriak bultzatzeko:

- ✓ **Galileo Masters** (European Satellite Navigation Competition – ESNC)
- ✓ **GipuzkoAPPs**: mugikorren aplikazioak (APP) lantzen dituzten garatzaile eta enpresei ikusgarritasuna emateko.

5. Erakundeetan izandako partaidetza

Informazioaren Gizarteko Sistemen Zuzendaritza Nagusiak hamabost bat enpresa eta erakunde baino gehiagotan parte hartu du. Horietako gehienak enpresa-sustapenaren arloan aritzen dira:

- ✓ Industrialdeak, GaiaNet Exchange, Seed Gipuzkoa, Vicomtech, ETIC, Bic Berrilan, Biobide, S.L. , Biozientziak Gipuzkoa Fundazioa, Kursaal Elkargunea S.A., Kursaal Escena, Seed Gipuzkoa S. C. R., Sueskola Gipuzkoa Fundazioa

6. Gardentasuna eta komunikazioa

- ✓ IKTak modu intentsiboan erabili ditugu enpresekin eta Gipuzkoako gizartearekin harremanetan egoteko.
- ✓ Hiru webgune sortu ditugu eta gure zuzendaritzako medio propioen bidez mantendu ditugu:

- www.gipuzkoalkt.net





- www.gipuzkoAPPS.eus



- <http://galileo-masters-gipuzkoa.eus/eu>





Sarrera

Ez da erraza Informazio Gizartearen Zuzendaritza Nagusiko taldeak legegintzaldi osoan egindako lana laburtzea. Horregatik, gauzak argi azaldu nahian, alderdirik azpimarragarrienak eta herritarren eskura jarri ditugun beste dokumentu publiko batzuetan jaso ez diren azalpenak jaso ditugu dokumentu honetan.

Dokumentuan, labur azaltzen da zergatik hartu diren zenbait erabaki eta horiek nola gauzatu diren. Oso garrantzitsua da hori; izan ere, **legegintzaldi honetan, aldaketa oso garrantzitsuak egin dira aurrekoarekin alderatuta**, eta uste dugu dagokigun ingurune sozioekonomikoari egokitu zaizkiola aldaketa horiek.

Legegintzaldia 2011ko ekainaren amaieran hasi zen arren, 2012ko urtera arte, hau da, aurrekontuak onartu eta diseinaturiko ekintzak martxan jarri arte, ez zuen erantzukizun osoa hartu zuzendaritza berriak. Hortaz, praktikan, 2012/2015 laurtekoa da aztertu beharreko legegintzaldia.

Legegintzaldiaren bilakaera markatu dute, besteak beste, krisi ekonomiko sakonak eta Batzar Nagusietan gutxiengoan egoteak, neurri batean, horren eraginez, ezin izan baititugu hartu erabakiak askatasun osoz. Beraz, ez da izan legegintzaldi erraza, baina, hala ere, uste dugu oso balantze ona egin behar dela.

Aurrekontu-mugak. Legegintzaldi honetan, ohikoak izan dira aurrekontu-murrizketak, eta, ondorioz, argi zehaztu behar izan dira lehentasunak. Arazoaren larritasunaren ideia bat izatearren, zuzendaritza honek azken bi legegintzaldietan kudeaturiko aurrekontua 11,00 milioi eurokoa izan zen; legegintzaldi honetakoa, aldiz, 3,01 milioi eurokoa izan da batez beste.

Urtea	2011	2012	2013	2014	2015
AURREK. (milioi €)	5,12	4,07	2,06	2,53	3,40
AURREK. %	%100	%80	%40	%49	%66

Norabide-aldaketa Egoera hain txarra izanik, beharrezkoa zen erabaki garrantzitsuak hartzea eta lehentasunak zehaztea. Informazio Gizartearen Zuzendaritzakook ulertu dugu enpresen eta Gipuzkoako udalen iraupenak eta haien lehiakortasun-maila hobetzeak izan behar zutela legegintzaldiko helburuak. Horren emaitza izan dira:

- ✓ **Errotik berritu dira** enpresa teknologikoak bultzatzeko **politikak**. Hurrengo taulan egiazta daitekeenez, **martxan jarritako ia politika guztiak berriak izan dira (amaierako aurrekontua jasotzen da taulan eta aurrekontua onartu ondoren jasotako diru-sail batzuk ere agertzen dira; horregatik dago hain alde handia aurreko taularekin).**

KONTZEPTUA/PROGRAMA	2011	2012	2013	2014	2015	Legegin. guztira
LANGILEAK	326.938 €	325.845 €	315.061 €	324.026 €	335.486 €	1.300.418 €
GASTU OROKORRAK	177.534 €	191.840 €	101.015 €	76.281 €	76.281 €	445.416 €
IZFE	2.500.000 €	1.200.000 €	525.000 €	850.000 €	1.745.000 €	4.320.000 €
DIRU-LAGUNTZAK	2.058.825 €	1.945.000 €	1.358.700 €	1.777.720 €	1.241.000 €	6.322.420 €
GIPUZKOAKO GANBERA	240.000 €					0 €
GAIA	148.825 €					0 €
ENPRESA DIGITALA (BIC Berrilan)	50.000 €	45.000 €	45.000 €	45.000 €	45.000 €	180.000 €
MIKROENPRESAK	1.600.000 €	550.000 €				550.000 €
BESTE BATZUK	20.000 €			21.720 €		21.720 €
GipuzkoAPPs LEHIAKETA			30.000 €	6.000 €	6.000 €	42.000 €
e-UDALAK		300.000 €	483.700 €	390.000 €	390.000 €	1.563.700 €
IKTen SEKTOREA		1.050.000 €	550.000 €	565.000 €	550.000 €	2.715.000 €
SMART GIPUZKOA			250.000 €	250.000 €	250.000 €	750.000 €
SMART LAB GIPUZKOA				500.000 €		500.000 €
	5.063.297 €	3.662.685 €	2.299.776 €	3.028.026 €	3.397.767 €	12.388.254 €



- ✓ Aurrekontu-baliabideak **berrikuntza-maila handiena** eta enplegua sortzeko ahalmen handiena **zuten proiektuetan** espezializatu dira.
- ✓ Hazteko gaitasun handia duten **negozio-alar berrien** alde egin da: Mugikorretako aplikazioak (APPak), aplikazio geoerreferentzialak, teknologia adimentsuekin lotutako proiektuak lurraldeakudeaketarako (Smart proiektuak)...

Forma-aldaketa. Politikak aldatzeaz gain, horiek gauzatzeko modua ere aldatu da:

- ✓ Informazio eta komunikazio **teknologiak modu intentsiboan** erabili dira, bai barne- nahiz kanpokudeaketan bai enpresa eta erakundeekin komunikazio-kanalak zehaztean.
- ✓ **Gardentasuna.** Kezka handia genuen horren inguruan, eta kezka horren emaitza izan da gure webgunean sorturiko atal berezi bat. Atal horretan, mezua era errazean azaltzen duten tresna berrien bidez (infografiak, Prezi...) eta Twitter-en bidez (@gipuzkoalKT), komunikazio-kanal iraunkor bat sortu dugu, eta, horren bidez, zer lan egiten dugun eta lan hori nola egiten dugun edonork jakin dezan saiatu gara.
- ✓ **Gertutasuna.** Bultzatutako proiektu guztien arduradunekin egoten saiatu gara, lehen eskutik ezagutzeko izandako lorpenak eta baita sektorearen kezkak ere, batzutan beren enpresetara gu joanaz.
- ✓ **Balioen transmisioa.** Ikusi dugu ekintza publikoak ezin duela mugatu laguntzak ematera, baizik eta laguntza horiek gizartea eraldatzeko ere balio behar dutela. Jakina, **euskara** presente egon da zuzendaritzak egindako ekintza guztietan, baina, aldi berean, aukera-**berdintasunaren** edo **Software librearen** alde egin da lan, diseinaturiko enpresa-sustapenerako programa guztietan klausula “sozialak” txertatuz.



2012 urtea - Legegintzaldiaren hasiera

2012ko ekitaldia da zuzendaritza berriari egotz dakioken lehenengoa, bai aurrekontua eta lehenetsunak zehazteari dagokionez, bai programak diseinatu eta gauzateari dagokionez. Beraz, ekitaldi horretatik aurrera balora daiteke kudeaketa berria.

2012ko apirilean, 15/2012 Foru Dekretua argitaratu zen. Dekretu horretan, Informazio Gizarteko Sistemen Zuzendaritza Nagusiaren eskumen-alorrak definitu ziren, eta, horrekin batera, barne-mailan, lan-esparru kontzeptuala gidatuko duen "2012/2015eko legegintzaldi-plana" egin zen. Planaren xedea zehazten duen atala azpimarratu nahi dugu, duen garrantziagatik:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte gisa, gure xedea da Gipuzkoan bizi direnen gizarte-ongizatea eta bizi-kalitatea modu iraunkorrean hobetzen laguntzea.

Horrekin batera, eta Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiari dagokion eskumen-alorrekin bat...

Gure helburua da ekonomiaren eta enpleguaren hazkunde iraunkorra bultzatzea, teknologia informatikoen erabilera aurreratu eta adimentsuaren bidez, IKTen sektorearen –eta, hedaduraz, Gipuzkoako sare ekonomikoaren lehiakortasunari– lagunduz.

Eta hori guztia gauzak egiteko moduari buruz dugun ikuspegiarekin bat:

Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiaren ikuspegia da informazio-teknologiak erabat txertatu behar direla Gipuzkoako enpresa-, administrazio- eta gizarte-sarean, eta plataforma eta euskarri bezala erabili behar direla garapen ekonomikorako, hobekuntza lehiakorrerako eta gizarte-eraldaketa eta -integrazioarako.

Gure jarduera guztietan balio hauek aplikatu nahi ditugu, eta uste dugu, horien bidez, bizi-kalitate hobea izango duen eta bidezkoagoa eta iraunkorragoa izango den gizarte bat eratzen lagunduko dugula.

Euskarra: *IKTak euskaraz ere landuko diren legegintzaldia izatea nahi dugu. Hala, euskararen presentzia sustatu dugu jarduera guztietan, eta ez soilik komunikabide gisa, baizik baita prozesu eta produktuetan landutako garapen-teknikoetako hizkuntza gisa ere.*

Giza eskubideak, berdintasuna, integrazioa eta aniztasunaren errespetua, gardentasuna.

Partaidetza: *uste dugu pertsona, eragile eta enprekin harreman-lotura egonkorak sortuz bakarrik jakin dezakegula zeintzuk diren haien beharrak, eta horrela jokatu ahal izango dugula modu eraginkorragoan.*

Neurri batean "trantsizio" urte gisa hartu behar den arren, ekitaldi horretan aldaketa garrantzitsuak egin ziren eta legegintzaldiaren gidalerroak zehaztu ziren:

1. Laguntza-programak

Sustapen-departamentuaren barne egonik, daukagun helburua enpresen lehiakortasuna sustatuko duten politikak diseinatzea da, gure kasuan enpresa teknologikoak lehenetsiz. Horretarako, gastua, inbertsioa edo kudeaketa-politika jakin batzuk bideratzeko laguntza-programak diseinatzen dira. Ikusgarriena beti dirua den arren, ohiturak aldatzeko eta erakundeak lehiakorrago izateko alor publikotik garrantzitsutzat jotako alderdiak bultzatzea da pizgarri horien helburua.

2011n, zuzendaritzak sustatutako laguntza-programa bakarra mikroenpresetara bideratu zen. 2012an, berriz, legegintzaldiaren izaera markatu zuen aldaketa garrantzitsua egin zen. Programarik tradizionalenak pixkanaka alde batera utzi, eta eduki berritzaile handiagoa eta erakundeen eraldaketa lehiakorrerako ahalmen handiagoa zuten beste batzuk jarri nahi ziren martxan. Hala, programa bakar batera bideraturiko diru-laguntzatik, hiru jardueretara bideratu zen zenbateko hori; horietako bi guztiz berriak.



Mikroenpresen babesa

Sustapen-programa bat zen, enpresa oso txikiek webgune bat sortu eta gailu mugikorretara egokitu zezaten eta sare sozialetan sar zitezten. Programak ondo "funtzionatzen" zuen arren (300 proiektutik gora babestu genituen) aldaketa lehiakorrek bultzatzeko zuen benetako ahalmena eskasa zela ikusi zen; ondorioz, urte amaieran programa alde batera uztea erabaki genuen.

Berrikuntza Digitala: IKTen sektorea

Egindako azterketa estrategikoaren ondoren, ondorioztatu genuen, krisi garaian, garrantzitsua zela IKTen sektorea sakon babestea, ez soilik bere garrantziagatik, baizik baita gainerako sektore ekonomikoetan berrikuntza lehiakorrek txertatzeko duen gaitasunagatik ere.

Aplikazio informatiko berritzaile berriak ("IKT produktu berriak" deitzen genien) sortzeko I+G proiektuak garatzea bultzatzen zuen programa bat diseinatu genuen.

Berrikuntza Digitala: Udalak

Informazio eta komunikazio teknologiak pertsonen eta erakundeen harremanak eta kudeatzeko moduak sakonki aldatzen ari ziren une hartan, Gipuzkoako udalak estandar teknologiko berrietan txertatzea azkartuko zuen programa bat diseinatzeko beharra ikusi genuen. Bereziki garrantzitsua zen hori udalen tamaina txikia eta haien egoera ekonomiko zaila kontuan izanda.

Lehenago udaletara bideratutako programaren bat egon zen arren, web korporatibo batez hornitzera bideratuta zeuden laguntzak. Legegintzaldi berrian, aldiz, aurrerapausoak eman nahian, balio erantsi handiagoko irtenbide bat hartu genuen:

- ✓ Azpiegiturak eta konektibitatea
- ✓ Software Librerako irtenbideak
- ✓ Herritarren partaidetza bultzatzeko tresnak
- ✓ Datu publikoetarako sarbidea errazteko tresnak

2. Ekintzailtza

Departamentuko ekintzailtza-alorrarekin lankidetzan hasi ginen, enpresa berrien IKT proiektuak aztertu eta baloratzeko. Gipuzkoako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko SPRI sozietate publikoarekin elkarlanean, enpresa berritzaile berriak sortzeko laguntzak aztertu eta bideratu genituen.



Galileo Masters (Galileo Satelitearen Lehiaketa)

Euskadik nazioarteko lehiaketa horretan parte har zezan bultzatu genuen. Hain zuzen, Europako "Galileo" sateliteetan oinarritutako nabigazio-teknologiak erabiltzeko enpresa-ideiak saritzen dira lehiaketa horren bidez. Munduko 25 eskualdek baino gehiagok hartzen dute parte lehiaketa horretan – gehienak Europakoak izan arren –, eta geoposizionamendu-teknologiaren arloko ezagutza-sare handientzat hartzen da. Nazioarteko saria 20.000 €-koa da, eta eskualdekoan (Gipuzkoako irabazleari emandakoa), ideia enpresa-proiektu bihurtzeko laguntza ematen da.



3. IZFE

Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte (IZFE) Informazio Gizartearen Zuzendaritzara atxikita dago, eta haren esku dago, Administrazio Kontseiluarekin koordinazioan, kudeaketa-politika zehaztea, baita hari jarraipena eta kontrola egitea ere. IZFEk lantzen eta mantentzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko eta ia udaletxe guztietako informatika-zerbitzuak (Donostiako eta Irungoa izan ezik). 145 lagunetik gorako lan-taldea du, eta urtean 20 milioi euro inguruko fakturatzen ditu; hala, Gipuzkoako informatika-enpresa handienetakoa da.

Egoera aztertu ondoren, 2012an, gerentziaren erreleboa egin zen eta udaletako ardurak berrantolatu ziren. Neurri horretako erakunde batek modu nabariagoan egon behar zuen bideratuta bezeroarengana, eta, halaber, estandar teknologikoak berriro beharra zegoen. Ondorioz, helburu horretara bideratutako neurriak hartu behar izan ziren barne-mailan.

Halaber, urte horretan, erakundearen berbideratze lehiakorra ziurtatzeko plan estrategiko berria hasi zen definitzen.

4. Sentsibilizazioa, prestakuntza

Enpresa Digitala da aurretik zeuden jardueretatik "oinordetu" den bakarra. Erakundearteko ekimen bat da (Eusko Jaurjaritza+Aldundiak), enpresak informazio eta komunikazio teknologiaren inguruan trebatzeko eta sentsibilizatzen. Hitzarmen horren esparruan, jardunaldi hauek bultzatu ziren:

- ✓ Betor: Akting
- ✓ Betor: Ideateca eta jokoen merkatua
- ✓ Betor: Javier Etxebeste, Nestoria
- ✓ Smartphone bidezko multimedia-sorkuntza eta hedapena gizarte-sareetan
- ✓ Enpresetarako sareko hizkuntza-kudeaketa
- ✓ Indusmedia: INDUSTRIA-ENPRESENTZAKO MARKETIN DIGITALEKO II. KONGRESUA
- ✓ Internet 2012 - Ezagutzen zenuena historia da dagoeneko
- ✓ Mugikortasuna enpresaren zerbitzura
- ✓ IKTak nazioartekotzeari laguntza emateko
- ✓ Smartphone-Tablet (iPhone-iPad-Android) erabilerak eta aplikazioak




Batez ere, azpimarratu behar da, lehenengo aldiz, jardunaldi batzuk euskaraz programatu zirela. Jardunaldi horietan, hainbat ekintzailek beren proiektua eta esperientzia azaldu zuten (BETOR).

Hitzarmen horretatik at, ekitaldi hauek ere bultzatu ziren:

- ✓ **Herritartasun Digitalaren Nazioarteko Kongresua**
- ✓ **2012ko RESCI kongresua:** Kriptologia eta informazio-segurtasuna
- ✓ **Euskarabildua:** Teknologia berrien arloko erreferentziazko bilgune izatea zen jardunaldiaren helburua. Teknologia berriei buruz euskaraz hitz egiteko, ezagutza partekatzeko, gure inguruetik kanpoko esperientzien berri izateko, guztion artean ikasteko... foro bat da.
- ✓ **Gipuzkoa Encounter:** Urtero Tolosan ospatzen den Gipuzkoa Encounter ekitaldia da Gipuzkoan egiten den informatika zaleen topaketa handiena (400 partaide). Euskal Encounter-aren gipuzkoar bertsioa da. Gipuzkoako Foru Aldundiaz gain, ekitaldi hori sustatzen egiten dute lan Tolosako Udalak, Euskaltel Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak, Spri-ren bitartez.
- ✓ **Buber sariak:** Euskadiko internauten elkarteak ematen dituen sariak dira, euskal internautek hainbat alorretan egiten duten lana aitortzeko: webgune edo blog korporatibo onena, blog edo webgune pertsonal onena, software librea ondoen sustatzen duen webgune edo aplikazioa, euskara ondoen sustatzen duen webgune edo aplikazioa.

- ✓ **XARE 2012:** euskarazko IKTen sektorea babestea helburu zuen azoka, ikusgarri eginez eta balioa emanez. Azokan, euskarazko software-programak proposatu ziren, software-a itzultzeko lankidetzeta-taldeak sustatu ziren eta herritarrak erakartzeko gune bat sortu nahi izan zen, ordenagailuak, mugikorretako sistema eragileak eta softwarea euskaraz pertsonalizatzera bultzatuz.



Gipuzkoako Foru Aldundia



2013 urtea – SMART GIPUZKOA

% 50 inguruko aurrekontu-murrizketa handi batek markatu zuen urtea, eta, ondorioz, jarduerak birpentsatu behar izan ziren. Ebaluazioa egin ondoren, mikroenpresen programa alde batera uztea eta IKT sektoreko enpresetarako eta udaletarako diseinatutakoak mantentzea erabaki genuen.

1. Laguntza-programak

Aurrekontua % 50 murriztu arren, lehentasunak berrantolatzen jakin genuen, eta, gainera, bi jarduera berri diseinatu genituen: batetik, APPen lehiaketa, gastuaren barne-berrantolakuntzaren bidez finantzatua eta, estetik, "Smart Cities"-etara bideratutako produktu teknologikoen garapena bultzatzeko programa.

Aurrekontu-murrizketak arazo bat izan daitezke, baina baita aukera (behar) bat ere antolakuntza birpentsatzeko, eta halaxe egin genuen.

Mikroenpresen babesa

Bertan behera utzi zen programa

Berrikuntza digitala: IKTen sektorea

Aurrekontu-murrizketaren ondorioz, ahaleginak kontzentratzen saiatu ginen, eta proiektu hauei eman genien lehentasuna:

- ✓ Mugikorrekin lotutakoak (APP-ak)
- ✓ Lurraldeen kudeaketa adimentsura bideratuak (Smart proiektuak)
- ✓ Enpresa sortu berriek sustatuak
- ✓ Emakumeek kudeatuak eta emakumeen partaidetza dutenak

SMART GIPUZKOA

Krisiaren ondorioak leuntzeko ezohiko aurrekontuen kargura, 250.000 €-ko hornidura eskatu eta lortu genuen, eta lurraldeen kudeaketa adimentsurako irtenbideak garatzeko bideratu genuen.

Gure iritziz, epe laburrean, Smart teknologiek protagonismoa izango zuten lurralde-garapenaren, berrikuntza teknologikoaren eta, finean, garapen ekonomikoaren eta kalitatezko enplegu-sorkuntzaren alorrean. Jatorrizko kontzeptua estuki lotuta dago hiri handiekin eta pertsona- eta talentu-metaketaekin eta aberastasuna sortzearekin, baina baita metaketa horrek ekar ditzakeen arazoekin ere, zeintzuk zalantzak jartzen baitute lurraldeen jasangarritasuna. Munta handiko arazoak ekar ditzakete beraz. Horien aurrean, irtenbide eraginkorrak aplikatu behar dira, eta gaur egungo egoera teknologikoan, Informazio eta Komunikazio Teknologia era intentsiboan aplikatu beharra dakar horrek. Hori gutxi balitz, aurreikusten genuen teknologia-mota horiek eta ondorengo aplikazioek garapen ekonomikorako baliabide publikoen zati handi bat bideratuko zutela epe labur eta ertainean. Hortaz, gure enpresek pixkanaka barneratu behar zuten jarduera alor bat zela uste genuen.

Berrikuntza digitala: Udalak

Programa mantendu genuen, baina bi lan-ildo berri ireki genituen:

- ✓ **SMART GIPUZKOA:** hazkunde ekonomikoaz gain, udalen gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzen dituzten aplikazioak txertatzeko.
- ✓ **OPEN DATA:** udalek datu publikoak liberatzeko.



2. Ekintzailtza

Lankidetzan jarraitu genuen departamentuko ekintzailtza-alorrarekin.

Galileo Masters nazioarteko lehiaketan egon ginen.

GipuzkoAPPS

Gastu korrontean aurreztutakoaren bidez, Gipuzkoako enpresa edo herritarrek garatutako mugikorretarako aplikazio onenak saritzeko sari bat bultzatzeko diru-saila sortu genuen. **Euskadin alor horretan bultzatutako lehenengo lehiaketa izan zen**, eta arrakasta handia izan zuen (50 aplikazio baino gehiago).

Lehiaketaren formula erabili zen, batetik, aurrekontu-murrizketak ez zuelako aukerarik ematen zerbait handiagoa egiteko, baina, beste alde batetik, bagenekielako aplikazio-mota horien porrotaren arrazoi nagusienetako bat merkatuan duten ikusgarritasun eskasa dela. Uste genuen lehiaketaren formulak hobetu egin zezakeela aplikazioen eta horiek garatu zituzten enpresen ospea eta ikusgarritasuna. Erakusleihu garrantzitsua izan zitekeen APP eta baita enpresa garatzaileentzat ere. Sarien banaketako ekialdi bat egon zen eta APPen ikusgarritasun hori errealiare bilakatzeko.



3. Sentsibilizazioa, prestakuntza

Enpresa Digitala ekimenarekin elkarlanean jarraitu genuen, jarduera hauen bidez.

- ✓ Betor: Haritz Rodriguez (Barking blogs)
- ✓ Betor: Xabier de la Maza (La Salsera)
- ✓ Zure e-commerce-ri errendimendu handiena nola atera
- ✓ Pertsonen kudeaketa antolakuntza teknologikoetan
- ✓ IEB2013: Telefonoak eta informatika
- ✓ IndusMedia - Enpresa Industrialetarako Marketin Digitala
- ✓ Internet 2013 - Ezagutzen zenuena historia da dagoeneko
- ✓ Kanban: 5 pauso erraz eraginkortasuna, efizientzia eta egokitzeko gaitasuna hobetzeko
- ✓ Liferay CMS Edukien Administrazio eta Kudeaketa Aurreratua
- ✓ Lainoak zure enpresarako izan ditzakeen onurak
- ✓ Muntatu ezazu webgune oso bat Wordpress-ekin 4 ordutan
- ✓ Negozio-aukerak APPEkin
- ✓ Prezi: lortu emaitza desberdinak aurkezpen desberdinekin
- ✓ Harreman publikoak Interneten: nola identifikatu eta harremanak izan interesatzen zaizkigun haiekin.



Zuzendaritzak zuzenean sustatuta, jardunaldi hauek egin ziren:

- ✓ 2013ko **Galileo Masters** lehiaketaren aurkezpena, lehiaketa koordinatzen duen zentro alemaniarren presentziarekin.
- ✓ Herritartasun Digitalaren Nazioarteko Kongresua (**#CICD**)
- ✓ **Euskarabildua**: Jardunaldi horien bidez, ikus-entzunezko teknologien ezagutza partekatzea eta hizkuntzaren erabilera sustatzea zen helburua, euskara zabaltzen laguntzeko. Bitxikeria modura, parte-hartzaileetako bat Pablo Iglesias izan zen, politikan sartu aurretik, eta “Disputar la Democracia en los medios” hitzaldia egin zuen.
- ✓ **Gipuzkoa Encounter 2013**

Online prestakuntza:

- ✓ Android programazioaren oinarriak (**MOOC**): Euskadin lehenak izan ginen mota horretako ikastaroen sustapenean. Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioarekin lankidetzan egin genuen ikastaroa. MOOC ikastaroak unibertsitate arlokoak dira, eta online eta doakoak dira. Gainera, kasu honetan, euskaraz emateko diseinatu ziren.
- ✓ **Sare sozialei eta gazteei buruzko oinarrizko ikastaro digitala**: Gipuzkoako ikastetxe ezberdinekin eta guraso elkarteekin elkarlanean, familiak arduratzen dituen eta batzuetan nola aurre egin jakiten ez duten gai bati buruzko orientabidea zuen helburu ikastaroak.
<http://saresozialaketaadingabeak.igipuzkoa.net/>



2014 urtea – SMART LAB GIPUZKOA

Beste proposamen berritzaile bati esker, aurrekontua onartu ostean, milioi erdi euroko ezohiko hornikuntza bat lortu zen, eta Smart teknologien arloko "zirkulua ixten" lagunduko zigun programa berri bat bultzatzeko erabili genuen.

1. Laguntza-programak

Lehen aipatu den moduan, ekitaldi honetako berrikuntza izan zen Gipuzkoako enpresek Smart teknologiak erabiltzeko proiektu pilotu bat bultzatzeko programa berri bat.

Berrikuntza digitala: IKTen sektorea

Programa mantendu genuen, eta aurreko ekitaldiak martxan jarritako aldaketak finkatu genituen.

SMART GIPUZKOA

Programa finkatu genuen, kasu honetan, aurrekontu korrontetik, eta Smart teknologien atzean merkatu garrantzitsua dagoenaren uste osoa baieztatu genuen.

SMART LAB GIPUZKOA

Smart teknologiak deitzen dira, IKTak modu intentsiboan erabiliz, hainbat lurralde-esparruren kudeaketarako irtenbide eraginkorrak proposatzen dituzten teknologiak; besteak beste: hiriko eta hiri arteko mugikortasuna, energia- eta ingurumen-eraginkortasuna, azpiegitura eta eraikinen kudeaketa eraginkorra, gobernua eta herritarrak, segurtasun publikoa, osasuna, hezkuntza, giza kapitala eta kultura, e-merkataritza...

Gure ustez, merkatu horren garapen masiborako oztopoetako bat zen, askotan, eskainitako berrikuntza teknologikoak ez zuela haren eraginkortasuna enpirikoki egiaztatzen. Horregatik, laborategi gisa Smart **produktu hoiek testatzeko** programa bat bultzatzea pentsatu genuen. Berrikuntza-ekosistema ireki batean, testuinguru erreal eta egunerokoetan teknologia horien aplikazioak egiteko eta haien erabilera sistematikoki aztertzeko laguntzak sortu ziren, teknologia bera eta hari lotutako negozio-eredua teknikoki baliozkotzeko.

"Living Lab" proiektuen bidez, ohiko azterketa-prozesuekin ez bezala, erabiltzaile-komunitateak azterketarako objektu ezezik, baliozko sorkuntza-iturri bihurtzen dira berrikuntzarako ekosistema ireki batean.

Berrikuntza digitala: Udalak

Programa mantendu genuen, eta aurreko ekitaldian egindako aldaketak finkatu genituen; horrez gainera, izaera korporatiboko proiektuak berriaz bultzatzeko ildo bat sortu genuen, IZFERen gainbegiratze teknologikoaren bidez, Gipuzkoako udaletan erraz aplikatu zitezkeen irtenbideak proposatzeko.

2. Ekintzailletza

Departamentuko ekintzailletza-alorrarekin lankidetzan jarraitu genuen, eta **Galileo Masters** nazioarteko lehiaketan ere egon ginen.

GipuzkoAPPs lehiaketa berbideratu genuen, hornikuntza txikiagoarekin eta hiru sari-kategoria berri ezarriz: negozio-eredu batekin loturiko APP onena, gizarte-inpaktu handiena izan dezakeen APPa eta APP originalena. Sari banaketa ekitaldiari jarraipena eman genion, aurreko urean ikusitako arrakasta kontuan izanik.



3. Sentsibilizazioa, prestakuntza

Enpresa Digitala ekimenarekin elkarlanean jarraitu genuen, jarduera hauen bidez.

- ✓ Betor - Iurgi Arginzoniz (FON)
- ✓ Betor - Telmo Sexmilo (WATTIO)
- ✓ Kostu baxuko 3Dko inprimaketa: guztion eskura dagoen fabrikazioa
- ✓ Interdigitala: IKTak eta nazioartekotzea
- ✓ Internet 2014 - Ezagutzen zenuena historia da dagoeneko
- ✓ Gauzen Internet zure enpresan
- ✓ Industria-enpresentzako marketin digitaleko IV. kongresua
- ✓ Segurtasunaren giltzarriak nire enpresan

Zuzendaritzak ekintza hauek bultzatu zituen zuzenean:

- ✓ **HTML 5** estandarra ikastea (**MOOC**): gailu anitzeko programazioa ahalbidetzen duten "responsive" teknologiei buruzko ikastaroa. Euskaraz egin zen.
- ✓ **DATORRENA**: Euskadiko Internauten Elkartarekin elkarlanean, etorkizuneko Interneti buruzko joera teknologiko berrienak ezagutzera bideratuta zegoen ekitaldia.
- ✓ **Euskarabildua #3** – 2014ko edizioa: Hizkuntzaz eta teknologiaz gainera, IKTek hezkuntza-prozesuan eta -metodologian egiten duten ekarpena landu zen urte horretako edizioan. Halaber, hizkuntzen irakaskuntzan oro har eta euskararen ikaskuntzan bereziki dakartzan erronkak jarri ziren mahai gainean.
- ✓ **Gipuzkoa Encounter** 2014
- ✓ KICK OFF **GALILEO** 2014. Lehiaketaren aurkezpen-ekitaldia, Europako Espazio Agentziako (ESA) kide baten ordezkartzearekin.
- ✓ **LibreCon**: Euskadin Open Source teknologien eta Software Librearen inguruan egin zen Nazioarteko kongresua bultzatu genuen. Kongresu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gardentasunaren eta Open Data-ren aldeko estrategia eta hartarako garatutako plataforma teknologikoa aurkeztu zuen Informazio Gizartearen Zuzendaritzako zuzendari Lore Martínez Axpek, "**GIPUZKOA IREKIA**" lehengoz bertan aurkeztuaz.



2015 urtea – Aurrekontu-luzapena

Zalantzarik gabe, urte erdi aldera legegintzaldi-aldaketa izatearekin batera, Batzar Nagusietan aurrekontua ez onartzeak eta aurrekontu luzatu batek dituen mugekin lan egin beharra eragin nabarmena izan dute ekitaldiaren bilakaeran.

1. Laguntza-programak

Kezka nagusia izan da aurrekontu-luzapenak edo “hauteskunde-urteak” ahalik eta eragin txikiena izatea enpresak bultzatzeko laguntza-programetan, ez baitituzte ulertzen alferrikako eta ezin justifikatuzko atzerapenak.

Berrikuntza digitala: IKTen sektorea

Ohiko datetan mantendu dugu programa. Ebaluazio teknikoa egin ondoren, proiektuak baloratzeko irizpideak doitu ditugu, eta “**Industria 4.0**” izeneko proiektu-ildo berri bat sortu dugu, komunikabideetan eta ekoizpen-sistema aurreratueta teknologia adimentsuak sartzea sustatzeko, IKT gaitasunak eta teknologiak aprobetxatzeko eta balio erantsi handiko zerbitzuak txertatzeko.

SMART GIPUZKOA

Ohiko datetan mantendu dugu programa. Ebaluazio teknikoa egin ondoren, proiektuak baloratzeko irizpideak doitu ditugu.

SMART LAB GIPUZKOA

Aurrekontu-luzapenerako irizpideek hornidurarik gabe utzi dute programa. Dagokion aurrekontua onartu zain gaude, aurrera eraman ahal izateko.

Berrikuntza digitala: Udalak

Aurrekontu-luzapenaren ondorioz, udaletarako programa ezin izan da argitaratu zegokion epean, eta horrek nolabaiteko atzerapena eragin du. Udalei eman zaie horren berri. Ekitaldi honetan, aurreko ildoarekin jarraitu da. Dena den, ildo berri bat sortu da, IZFEk diseinaturiko tresnen bidez, udaletxeek haien webguneak eguneratu ahal izateko eta webgune horiek edozein mugikorretatik ikusi ahal izateko.(Responsive)

2. Ekintzailletza

Departamentuko ekintzailletza-alorrarekin lankidetzan jarraitu dugu, eta **Galileo Masters** nazioarteko lehiaketan ere egon gara.

GipuzkoAPPs lehiaketa sinplifikatu egin dugu, Gipuzkoan garatutako aplikazio onena ikusgarriago egiteko eta balioan hartzeko irizpideen artean “Industria 4.0” gehitu da. Lehiaketa ohiko datetan abiatu da, eta epea irekita dago irailaren erdialdera arte (aurreko urteetan bezala).



3. Sentsibilizazioa, prestakuntza

Jarduera hauek egin dira Enpresa Digitala ekimenarekin lankidetzan:

- ✓ .EUS domeinuak: web migrazioari arrakastaz nola aurre egin
- ✓ Erabiltzailearen esperientzia, informazioaren arkitektura eta erabilgarritasuna
- ✓ Indusmedia: industria-enpresentzako marketin digitaleko V. kongresua (*)
- ✓ Interdigitala2015: IKTak eta nazioartekotzea (*)
- ✓ Internet 2015 - Ezagutzen zenuena historia da dagoeneko
- ✓ Liferay CMS Edukien Administrazio eta Kudeaketa Aurreratua
- ✓ Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea Hernanin
- ✓ Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea Tolosaldean (*)
- ✓ Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea Bergaran (*)
- ✓ Gipuzkoa IKT-1: Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, IKT teknologien aplikazioa lantzen du enpresa-munduan
- ✓ Gipuzkoa IKT-2: Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, IKT teknologien aplikazioa lantzen du enpresa-munduan (*)

(*) programatuta eta egiteke dagoen jarduera

2015ean, sentsibilizazio- edo trebakuntza-jarduera hauek landu ditu zuzenean Informazio Gizartearen Zuzendaritzak:

- ✓ **EKINTEK.** IKTekin ekitea: titulu teknikoak dituzten gazteei zuzendutako jardunaldia, IKTen esparruan dituzten ekintzaile-adibideak erakusteko eta ekintzaitza sustatzeko.
- ✓ **Hack & Beers:** Segurasun informatikoa. Hacker-en topaketa, Euskadiko Internauten Elkartearekin lankidetzan.
- ✓ KICK OFF **GALILEO** 2015. Nazioarteko lehiaketaren aurkezpen-ekitaldia
- ✓ **GAZZTEK:** Neskatala eta mutikoentzako errobotika tailerrak egin dira WRO (World Robot Olympiad) lehiaketaren barne. Donostian egin da eta Gipuzkoako 10 ikastoletako 5 taldek parte hartu dute.

Online prestakuntza:

- ✓ 3Dko inprimaketa: **Fabrikazio Gehigarriko** teknologiek –“3D inprimaketa” deitutakoek– zertarako balio duten eta proiektu bat nola egin eta nola inprima daitekeen deskribatzeko online ikastaroa



Legegintzaldia zenbakitan

Orain arte, kudeaketaren mugarrak eta horien arrazoiak azaldu ditugu labur. Atal honetan, berriz, egindako jardura nagusiak eta emaitzen zenbatekoak deskribatuko ditugu ahalik eta modurik laburrenean.

1. Aurrekontua

Aurrerago esan dugun moduan –eta ez da aitzakia baizik eta erreferentziako datu bat–, aurrekontuaren murrizketa handiak markatu du legegintzaldia. Uste dugu egoerara egokitzen jakin dugula eta egoerari ondoen egokitutako erabakiak hartu ditugula.

- ✓ Gastu korrontearen kudeaketa zorrotza egin dugu, eta murrizketak izan diren arren, ez dugu diru-sail osoa gastatu, hori egitea guztiz beharrezkoa izan denean izan ezik.
- ✓ Aurrekontu-murrizketa baliatu da jarduerak birpentsatzeko eta eraginkorragoak diseinatzeko.

KONTZEPTUA/PROGRAMA	2011	2012	2013	2014	2015	Legegin. guztira
LANGILEAK	326.938 €	325.845 €	315.061 €	324.026 €	335.486 €	1.300.418 €
GASTU OROKORRAK	177.534 €	191.840 €	101.015 €	76.281 €	76.281 €	445.416 €
IZFE	2.500.000 €	1.200.000 €	525.000 €	850.000 €	1.745.000 €	4.320.000 €
DIRU-LAGUNTZAK	2.058.825 €	1.945.000 €	1.358.700 €	1.777.720 €	1.241.000 €	6.322.420 €
	5.063.297 €	3.662.685 €	2.299.776 €	3.028.026 €	3.397.767 €	12.388.254 €

Hain urtez zailak izanik, pozik egon behar dugu gure eskura jarri den aurrekontuarekin, egindako lanarekin eta aurrekontu horri eman diogun erabilerarekin (ondoren ikusten den moduan).

2. Laguntza-programak

Legegintzaldi honetan, **goitik behera berritu dira** Informazio Gizartearen Zuzendaritzak eskainitako **laguntza-politikak**. Programa bat bertan behera utzi da, eta lau berri sortu dira.

Mikroenpresak

Definituta zegoen moduan, web aplikazio oso oinarrizkoak eta enpresetan aldaketa lehiakorra sortzeko gaitasun txikia zutenak aurreikusen zituen programak. Krisi-egoeraren aurrean, baliabideak eraginkorragotzat jo genituen beste jardura batzuetara bideratzea erabaki genuen.

Mikroenpresak	AURKEZTURIKOAK		BULTZATURIKOAK	
	Proi. Kop.	Proi. Kop.	Sustaturiko inber.	Emandako diru-laguntza
2012	319	307	915.536 €	375.559 €
2013	0	0	0 €	0 €
2014	0	0	0 €	0 €
2015 (*)	0	0	0 €	0 €
GUZTIRA	319	307	915.536	375.559

(*) Kudeaketa Planaren aurreikuspenak



Berrikuntza digitala: IKTen sektorea

Neurri batean edo bestean, teknologia informatikoen sektorea dago zuzendaritzak egindako jarduera guztien atzean. Gure kezka-iturria izan da, eta horrek gidatu du gure estrategia. Nahi izango genituzkeen baino baliabide gutxiago izan ditugun arren, ziur gaude lehiakortasun maila mantentzen lagundu dugula.

IKTen sektorea	AURKEZTURIKOAK		BULTZATURIKOAK	
	Proi. Kop.	Proi. Kop.	Sustaturiko inber.	Emandako diru-laguntza
2012	119	30	2.433.608 €	889.098 €
2013	100	26	1.546.911 €	546.494 €
2014	79	21	1.541.342 €	544.851 €
2015 (*)	52	25	1.500.000 €	550.000 €
GUZTIRA	350	102	7.021.860	2.530.443

(*) Kudeaketa Planaren aurreikuspenak

SMART GIPUZKOA

Bestalde, Smart teknologietan jarri dugu indarra. Diseinatutako programen sustapenak argi erakutsi du, batetik, gure enpresek hazten ari den merkatu horri buruz duten kezka eta, bestetik, horrelako proiektuak gauzatzeko duten gaitasun teknologiko handia.

SMART GIPUZKOA	AURKEZTURIKOAK		BULTZATURIKOAK	
	Proi. Kop.	Proi. Kop.	Sustaturiko inber.	Emandako diru-laguntza
2012	0	0	0 €	0 €
2013	42	7	898.993 €	250.000 €
2014	42	9	911.871 €	250.000 €
2015 (*)	34	8	880.000 €	250.000 €
GUZTIRA	118	24	2.690.864	750.000

(*) Kudeaketa Planaren aurreikuspenak

SMART LAB GIPUZKOA

2015ean aurrekontu-luzapenerako programa argitaratu ez den arren, hura finantzatzeko eta martxan jartzeko mekanismoak zehaztu dira, zeinak urtearen bigarren erdirako espero baititugu.

Uste dugu Gipuzkoa Smart teknologien alorreko esperimantazio-gune, teste-gune bihurtuz, herritarren bizikaltatea hobetuko dela, eta, horrez gainera, enpresen lehiakortasuna handituko dela.

Smart LAB	AURKEZTURIKOAK		BULTZATURIKOAK	
	Proi. Kop.	Proi. Kop.	Sustaturiko inber.	Emandako diru-laguntza
2012	0	0	0 €	0 €
2013	0	0	0 €	0 €
2014	15	8	956.575 €	500.000 €
2015 (*)	15	9	1.000.000 €	500.000 €
GUZTIRA	30	17	1.956.575	1.000.000

(*) Kudeaketa Planaren aurreikuspenak



Berrikuntza digitala: Udalak

Gure aukeren neurrian, "dena eman" dugu Gipuzkoako udaletxeen alde, krisiak beharrezko berrikuntza teknologikoari eta online zerbitzu publikoen kalitateari eragin ez ziezaien.

Udalak	AURKEZTURIKOAK		BULTZATURIKOAK	
	Proi. Kop.	Proi. Kop.	Sustaturiko inber.	Emandako diru-laguntza
2012	136	95	938.338 €	571.541 €
2013	105	84	617.997 €	398.265 €
2014	97	80	625.050 €	399.360 €
2015 (*)	100	82	625.000 €	400.000 €
GUZTIRA	438	341	2.806.386	1.769.166

(*) Kudeaketa Planaren aurreikuspenak

Laguntza-programa alde batera utzirik, Aldundiko plataformaren egokitzapena bultzatu dugu, IZFERekin lankidetzan, udalen gardentasun-beharrei aurre egiteko. Halaber, Open Data modu erraz eta ekonomikoan ahalbidetzeko ekintzak egin ditugu eta udalekin zeuden harreman-egitura guztiak berritu ditugu haiengandik gertuago egoteko.

3. Ekintzailtza

Batez ere IKTen sektorean, badakigu epe ertainean garrantzitsuak izango diren enpresak sortzen ari direla edo sortuko direla. Hori dela eta, pentsatu dugu oso garrantzitsua dela enpresak berritzeko eta sortzeko ekosistemarekin etengabe harremanetan egotea, enpresa eta enplegu berriak sortuko dituzten bitartekoak ahalbidetzeko.

Antolakuntza-arrazoiek direla eta, departamentuaren barruan beste ekintzailtza-alor bat sortzea baztertzan dugu, baina barne-mailako koordinazio-mekanismoak ezarri ditugu, batetik, proiektu berrien berri izateko eta, bestetik, negozio berriak sortzeko gure ezagutza eta esperientzia eskaintzeko.

Negozio berriak bultzatzeko kezka horren atzean daude sustatu ditugu bi lehiaketak. Horien bidez, enpresa-jarduera berriak sor ditzaketen irtenbide berritzaileak identifikatu nahi ditugu:

- ✓ Galileo Masters (European Satellite Navigation Competition – ESNC): Merkatu-nitxoak sortzeko lehiaketa da, parte hartzen duten teknologiak hain bereziak izanik.
- ✓ GipuzkoAPPs: mugikorren aplikazioak (APPak) lantzen dituzten garatzaile eta enpresei ikusgarritasuna emateko.



4. IZFE

Uste izatekoa den moduan, goi-mailako profil teknikoko 145 lagunetik gorako lan-taldea duen eta 20 milioi eurotik gora fakturatzeko dituen erakunde baten kudeaketa ez da zailtasunik gabeko lan bat, eta uste dugu ondo egin diogula aurre egoerari.

Legegintzaldiko mugarrigisa, hauek aipa daitezke:

- ✓ Gerentziaren erreleboa
- ✓ Zerbitzuen antolaketa-egitura Gipuzkoako udaletara birmoldatu da.
- ✓ Erakundearen berbideratze teknologikorako plangintza estrategikoa egin da.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informatikako Plangintza Estrategikoa bultzatu da.
- ✓ Open Source-n oinarritutako irtenbideen aldeko apustu irmoa egin da.
- ✓ Gipuzkoa.tv-ren plataforma teknologikoa berritu da.
- ✓ Gardentasunerako eta Open Data-rako plataforma korporatibo bat sortu da.

URTEA	LAN-TALDEA	FAKTURAZIOA(*)	EMAITZAK (*)
2012	147	20,6	0
2013	146	19,2	-0,5
2014	148	22,5	0,2
2015 (**)	149	24,6	0

(*) Fakturazio-datuak eta emaitzak milioi eurotan

(**) Kudeaketa Planaren aurreikuspenak

Datorren legegintzaldian, garrantzi berezia izango du **Gipuzkoa Smart Lurralde bihurtzeko** plataforma teknologiko baten aukeraketak.

SMART GIPUZKOA PLATAFORMA

Gaur egun, behar eta aurrerapen-maila desberdinak dituzten eta askotariko aplikazioak eta gailuak erabiltzen dituzten 88 udalentsako baliagarri izango diren irtenbide teknologikoak ebaluatzen ari gara.

Estandarretara egokituko den plataforma bat, behar guztiak modu errazean integratuko dituen eta erraz eskalatzeko modukoa; izan ere, argi daukagu, laster, gaur egungo kontrol-gailuak beste eraginkorrago batzuekin ordezkatzeko direla, eta azkar eta modu ekonomikoan egokitzeko prest egon behar dugu.

Beste plataforma batzuekin operagarria izango den plataforma (eta, noski, Gipuzkoako udalen arteko operagarritasuna –haiek nahi duten mailakoa– ahalbidetuko duena) eta berrikuntza-ekosistemaren kontzeptu hori errealitate bihurtzea ahalbidetuko duena.

Harremanetan egon gara lehen mailako hornitzaile ia guztiekin (IBM, Indra, Telefónica, Tecnalia, IKUSI, Microsoft) eta irtenbide sinpleagoak eskaintzen dituzten askorekin. Hala eta guztiz ere, lasai hausnartu behar da horren inguruan, erabaki horrek dituen ondorio teknologiko eta ekonomikoak kontuan hartuta.

Ezagutzen ditugun adibide guztiek hiriko proposamenak egiten dituzte bakarrik, ingurunearekin harreman gutxi dutenak eta, askotan, udalerritxikiak kontuan hartzen ez dituztenak. Hala, udalerritxikiak partaide izan ez diren erabakien ondorioak jasan behar izaten dituzte. Guk beste eredu bat proposatzen dugu, lurralde-eredua (**SMART TERRITORY**); udalerritertain eta txikiak azpiegiturak eta ezagutza parteka ditzaketen eredu bat eta arazo komunei eta, batez ere, arazoizko kostuei elkarrekin aurre egiteko aukera emango diena.



5. Sentsibilizazioa, prestakuntza

Zenbakiez haratago, zeintzuk oso garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu, etengabeko trebakuntza eta hedapena eskaini da urteko hilabete guztietan, eta uste dugu erabili dugun plataforma dela garrantzitsuena.

la kasu guztietan, beste erakunde batzuekin **elkarlanean** garatu dira ekimenak. Uste dugu eraginkortasuna lehenetsi behar dela gaizki ulerturiko protagonismoen aurrean; hala, hainbat erakunderekin sortu ditugu loturak: SPRI, Mondragón Unibertsitatea, Euskadiko Software Libreko Enpresen Elkarte (ESLE), EHU-UPV, GAIA (IEKTen arloko Klusterra), Euskadiko Internauten Elkarte (Internet&Euskadi), Euskaltel, Eusko Ikaskuntza,...

URTEA	Programatutako ekimenak
2012	16
2013	20
2014	14
2015 (*)	16

(*) Kudeaketa Planaren aurreikuspenak

6. Erakundeetan izandako partaidetza

Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiak mota hauetako hainbat enpresa eta erakundetan hartu du parte:

Berriaz Informazio Gizartearekin lotutako enpresak:

IZFE

Vicomtech-IK4 (Ikusizko Interakziorako eta Komunikaziorako Teknologien Zentroa) Donostiako Teknologia Parkean dagoen ikerketa aplikatuko zentroa da, eta ordenagailu bidezko grafiko interaktiboan eta multimedia teknologiaren alorrean egiten du lan.

ETIC: Microsoft Innovation Center gisa jarduten duen teknologia xurgatuak egiaztatzeko zentroa.

Gaia Net Exchange: erakundeei negozio-aukeretarako kanal unibertsal bat ematea du xede, hau da, erosketak, salmentak, fakturazioak, banku-eragiketak egiteko eta beste dokumentu-mota batzuetarako, dokumentu horiek erakunde horien informazio-sistemetan automatikoki integra daitezten. Horretarako, Gaia Net Exchange-k hainbat ERP fabrikatzailearen laguntza du, zeintzuk Gaia Net Exchange-kin eta arazo zehatzak konpontzeko aplikazioak hornitzen dituzten beste erakunde batzuekin konektatzeko gaitasuna ematen baitute haien ERPetan.



Lurzoruaren garapenaren eta negozio-lokalen alorreko enpresak (Industrialdea programa):

Deba Bailarako Industrialdea, SA (legegintzaldian zehar egindako Debabarreneko eta Debagoieneko sozietateen fusioaren ondoren sortu zen)

Irungo Oarsoaldeako Industrialdea, SA (legegintzaldian zehar egindako Irungo eta Oarsoaldeako sozietateen fusioaren ondoren sortu zen)

Lanbarren Parke Logistikoa, SA

Beste erakunde batzuk:

Biobide, SL

Biozientziak Gipuzkoa Fundazioa

Kursaal Elkargunea SA

Kursaal Fundazioa

Seed Gipuzkoa S. C. R.

Sueskola Gipuzkoa Fundazioa

7. Gardentasuna eta komunikazioa

IKTak modu intentsiboan erabili ditugu enprekin eta Gipuzkoako gizartearekin harremanetan egoteko.

- ✓ 2012an, gure webgunea argitaratu genuen, eta aitzindariak izan ginen Open Source Liferay Atari Kudeatzailea aplikatzen. Aplikazio pilotua izan zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat baliagarria izan zen irtenbide teknologiko hori antolakuntzarentzako estandar gisa hartzeko. Orduz geroztik, etengabe mantendu eta eguneratu da barne-mailan, inolako kanpo-kosturik gabe. Gaur egungo edukiaren % 50 baino gehiago guztiz berria da.
- ✓ Webgune horretan, laguntza-programen emaitzen berri ematen duten berriak eta estatistikak argitaratu ohi ditugu eta onuradunei aldizkariko sarbideak ematen dizkiegu.(TOP10 lagundutako proiektu onenen rankinga, etab.)
- ✓ Urtero argitaratu dugu gure aurrekontua gastatzeko modua, eta egindako emakida eta esleipen guztiak eta horien zenbatekoak zehazten ditugu. Baita IKT sektorearen informazioa, jardunaldiak, ikastaroak, etab.
- ✓ Barne-mailan bi webgune berri sortu ditugu sustatzen ditugun lehiaketen euskarri gisa erabiltzeko.
- ✓ GARDENTASUNAREN atala sortu dugu, Aldundiaren barruan aitzindari izan dena, Foru Araua baino lehenagokoa. Atal horren bidez, oso modu grafikoan eta xehean jasotzen dira egindako jarduerak guztiak.
- ✓ 2012an, gure kanal propioa sortu genuen Twitter-en (@gipuzkoakt), Gipuzkoan IKTen arloan aritzen diren enpresa eta pertsonetara errazago iristeko. 1.500 txio baino gehiago argitaratu ditugu, 90 konturi egiten diegu jarraipena eta 440 jarraitzailetik gora ditugu. Guretzat Twitter ez da propagandarako kanal bat, baizik eta komunikaziorako eta gardentasunerako baliabide bat.



Amaiera

Pribilegio handia izan da 4 urte hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiko, Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismoko Departamenduari dagokion Informazio Gizartearen Zuzendaritzan lanegitea.

Industria Teknologikoak daukan garrantzia ikusita, bai harremanak egiteko moduan, negozioak egiteko eran, enpresak lehiakorragoak egiteko bilakaeran, industrian, etab. Gipuzkoa atzean ez gelditzeko ekintzak sustatzen jarraitu behar dugu. Eta gizarte moduan, gai izan behar dugu Internetek eta ondorioz industria teknologikoak zein eginkizun izan behar duen definitzeko: hausnartu al dugu daukagun **bokazio teknologiko ezari** buruz? **Emakumeek arlo teknologikoan daukaten presentzia sinbolikoari** buruz? pentsatu al dugu zein eragin izango duen lanpostu batzuk *robotizatzeak*? Edo milioika datuen segurtasuna bermatzeko egoki prestatutako profesionalak ditugun? Eta eduki ezean, zein ondorio ekarriko duen horrek? Edo gure seme-alaben hezkuntzan, gure aitona-amonen zaintzan, euskararen etorkizunean, gure enpresen lehiakortasunean edo administrazioak eskaini behar duen zerbitzuan?

Industria teknologikoak etorkizuneko gizartearen garapenean garrantzia izugarria du, eta uste dut hausnarketa sakon bat falta zaigula, eragile guztion parte-hartzearekin: herritarrak, gizarte eragileak, hezkuntza sektoreak, I+G zentroak, enpresak, administrazioak... **Herri ikuspegia izango duen Estrategia baten beharra** dugu lehentasunak zehaztu eta baliabideak definitzeko. Teknologiak gure gizartea guztiz aldatuko du, bai ala bai, eta guk erabakitako norabidean aldatu beharko luke. **SmartEuskalHerria** eraikitzeko oinarri sendoak behar ditugu.

Asko gelditzen da egiteko...

Ez nuke bukatu nahi 4 urte hauetan nire lankide izan direnei eskerrak eman gabe. Gobernuako kideei, departamendukoiei, prentsakoei,...Bereziki, **ESKERRIK ASKO** Ángel, Izaskun, Jexus eta Nati. Eskerrik asko BOSTON. Plazer handia izan da zuek bezalako profesional eta pertsonekin lan egitea.

Espero dut, 2011-2015 Legealdiko Memoria Laburtu hau baliogarri izatea hemendik aurrera nire tokia hartuko duenarentzat. **Karguak kargu, alderdiak alderdi, denon artean Gipuzkoa eraikitzen jarraitu behar dugu.**

LORE MARTINEZ AXPE

Informazio Gizartearen Zuzendaria
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoko Deptua.
Gipuzkoako Foru Aldundia
@LoreAbarik

Donostia, 2015ko Ekaina